

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

Euskara eta Kulturako foru diputatuaren 332/2019 FORU AGINDUA, urtarrilaren 25ekoa, zeinaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko azaroaren 20ko 146/2018 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatuko dituen epaimahaiko epaimahaikideak izendatzen diren. Foru dekretu horrek 2019ko ekitaldirako «Ertibil-Bizkaia» Ikus-arteen Erakusketa Ibiltarirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen ditu.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko azaroaren 20ko 146/2018 Foru Dekretuak 2019ko ekitaldirako «Ertibil-Bizkaia» Ikus-arteen Erakusketa Ibiltarirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen ditu (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 236 zk., 2018ko abenduaren 10ekoa —astelehena—).

Foru dekretu horren 11. oinarrian honako hau ezartzen da: «Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Euskara eta Kulturako foru diputatuak izendatuko ditu epaimahaikideak, foru agindu bidez». Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Aginduaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

Batetik, aintzat hartu da oinarri horretan xedatutakoa. Bestetik, kontuan hartu da Euskara eta Kulturako Foru Saileko titularrari 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.i eta 67.1 artikuluetan (Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko Araua), 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan (Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena), Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuan (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuena) eta gainerako baterako xedapenetan ematen zaizkion eskumenak. Azkenik, kontuan hartu da, halaber, prozeduran parte ez hartzeari eta errefusatzeari dagokionez 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23 eta 24. artikuluetan xedatzen dena (lege hori Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena da). Bada, horren guztiaren ondorioz, honako hau

XEDATU DUT

Lehena: 2018ko azaroaren 20ko 146/2018 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko arduraz gain, Euskara eta Kulturako foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan, ebazpen-proposamena prestatu eta aurkezteko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzea. Honako hauek izango dira, beraz, epaimahaikideak:

Epaimahaiburua:

— Andoni Iturbe Amorebieta, Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusia.

Ordezko epaimahaiburua:

— Ana de Castro Rubalcaba, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskarako zuzendari nagusia.

Epaimahaikideak:

— Eztizen Esesumaga Salsidua (Rekalde Aretoko Hezkuntza eta Publiko arduraduna).

— Arantza Lauzirika Morea (EHUko Arte Ederren Fakultateko dekanoa).

— María Muriedas Díez (Artista eta «Ertibil Bizkaia» Ikus-arteen Erakusketa Ibiltariaren 2018ko ekitaldiko deialdiaren lehen sariaren irabazlea).

— Mikel Onandia Garate (Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea).



Idazkari titularra, botorik gabe:

— Mikel Murillo Aurrekoetxea (Teknikaria kultura-proiektuen zuzendaritzan).

Ordezko idazkaria, botorik gabe:

Aitziber Elezcano Altuna (Kultur Ekintzako Goi Mailako teknikaria).

Bigarrena: Foru-agindu hau interesdunei jakinaraztea eta haren berri ematea Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuari, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

Azken xedapen bakarra. — Indarreen jartzea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarreen foru-agindu hau.

Bilbon, 2019ko urtarrilaren 25ean.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA